

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren laburpena: bi urteko dirulaguntza-deialdia, euskara sustatzen duten entitateen eraldaketa digitalerako, antolakuntza indartzeko eta komunikazioa berritzeko proiektuak egitearren. 2026-2027

BDNS(Identif.): 917540.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/917540>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke

Lehena. Onuradunak

Euskara sustatzeko xedez, Vitoria-Gasteizen egoitza duten entitateak. Salbuespen moduan, onartu egingo dira Gasteizen egoitzarik ez duten baina udalerrian urtean zehar etengabe diharduten entitateak.

Erakundeen estatutuetan jaso behar dira, besteak beste, euskararen sustapena edo erabilera bera.

Bigarrena. Helburua

Elkarte-sarearen iraunkortasuna bermatzea, eta sare horren barne egiturak nahiz inpaktu soziala hobetzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko uztailaren 3an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 250.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2026ko irailaren 30 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 3a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko Zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ